

# Iraganeko aztarnen bila Murugainen

Historia aberatsa du Murugain mendiak. Burdin Aroan herrixka izan zen bertan, eta 1936ko Gerran, frankistei bidea galarazteko lubakia. Aztarnak berreskuratzeko auzolana egin dute ingurukoek azken hiru udaratan. Lekua egokitzeaz gain, jendartean zabaltzea dute helburu.

| MARTIN VICIOSO |

ARABA ETA GIPUZKOAREN arteko mugan dago Murugaineko gaina, soinean Arrasate, Aretxabaleta eta Aramaio dituela. Ondare historiko aberatseko mendia da eta Burdin Aroko herrixka baten eta 1936ko Gerra garaiko lubaki baten aztarnak aurki daitezke. Tamalez, ez ziren behar bezala mantendu eta denboraren poderioz, lurrak estali zituen. 2011ko udan, horiek berreskuratzeko auzolanari ekin zioten herritarrek, Aramaio



Udalak, Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak eta Ondare Babesa elkarteak bultzatuta. Orditik, urtero antolatu dituzte arkeologia saioak eta ondoren bisita gidatuak egin dituzte. Aurtengo uztailean, lehen aldiz, Aretxabaletako eta Arrasateko lurrak induskatu dituzte.

1936ko Gerran Debagoienako hainbat menditan eratu zituzten lubakiak, Arabatik Bizkairako bidean ziren frankistak oztopatzeko. Azken urteotan egindako indusketari esker, jakin da Burdin Aroko harresia baliatu zutela trintxera hornitzeko. Halaber, gerra garaiko bizimoduari buruz informazioa lortu dute, ateratako hondakinei esker. Hala nola, janari latak, bala-zorroak eta bestelako gailu belikoak berreskuratu dituzte.

Aranzadi elkarteko arkeologoen 1988an hauteman zuten Burdin Aroko herrixka Murugainen, orduko tresnak aurkituta. 2005ean berriz, telefono antena eraikitzeke lurra aztertzen ari zirela, harresia egon zela konturatu ziren. Berreskuratzea, ordea, ez da edonolako lana izaten ari. Eredu zabala har-

**Harresiak gordetzen zuten Burdin Aroko herrixka aurkitzea da hurrengo erronketako bat, zer nolako bizimodua zuten aztertu ahal izateko.**

proiektuan zenbateraino sakondu ahal izango duten.

## Dibulgazioaren garrantzia

Batik bat egokitzapen lanak egin dituzte orain arte. Hala ere, ondare historikoa herritarren artean zabaltzea da asmo nagusia. Urtero, auzolan saioak amaitu ostean, hitzaldiak eta bisita gidatuak egin dituzte aurkitutakoa aurkezteko. Dokumentazio lanetan Intxorta 1937 kultur elkartearen laguntza dute. “Bertan ibilitakoei ahotsa ematearen garrantzia” azpimarratu du Aramaioko Udalak.

Ondarea Berreskuratzeko Taldeak beste ekimen batzuk ere eraman ditu aurrera auzolanean, Murugaineko baina “xumeagoak”. Bide, eskailera eta iturri zaharrak egokitu dituzte, besteak beste. Aurrera begira halako proiektuekin jarraitzeko asmoa dute, nahiz eta uztaileko Murugaineko lanei berriro ekin. Denon artean aurrekoek utzitakoa berreskuratu eta zabaltzea baino ondare aberatsagorik ez baita. ■

